

Mozio arrunta, Bidebietako Institutuaren egoerari buruz eta auzoko hezkuntza publikoari buruz

EH Bildu udal taldeko bozeramaile Amaia Almirall Lopez de Luzuriagak, Udalbatzaren Erregelamendu Organikoaren 98. artikulua oinarri, MOZIO ARRUNT hau aurkezten du Bidebietako Institutuaren egoerari buruz eta auzoko hezkuntza zerbitzu publikoei buruz.

JUSTIFIKAZIOA

Donostiako Udalbatzan ordezkaritza dugun taldeok hiriko hezkuntza publikoaren eskaintzari eusteko konpromisoa adierazi dugu. Horretarako, gure hezkuntza komunitatearen eskaera eta kezka oinarridunei erantzuteko politikak sustatzen ditugu.

Azaroaren 14an jakin genuen, komunikabideen bitartez, Bidebietako Institutuak atek itxiko dituela 2019-2020 ikasturtean. Bidebietako Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publiko bakarrean 180 ikaslek egiten dute DBH eta Batxilergoa. Bidebietako auzotar askok, auzoko Haurreskolan hezkuntza hasi ondoren, Mendiolan egiten dute Lehen Hezkuntza, eta aipatu institutuan jarraitzen dute Batxilergorako bidea.

Edozein auzorentzat ezinbestekoa da gazteek bertan bizitzeko aukera izatea, eta, horretarako, kalitatezko oinarrizko zerbitzuak eskura izatea. Zerbitzu horien artean, hezkuntzak lehentasuna izan behar du. Horren haritik, Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publiko bakarra ixtea albiste txarra da Bidebietarentzat, baita auzo bizia, dinamikoa eta auzotarrei kalitatezko zerbitzuak bermatuko dizkiena eraikitzeke apustuarentzat ere.

Bidebieta Institutua itxiko zela jakin aurretik, eskola komunitateak pentsatzen zuen orain arte bi eraikinetan ematen ziren zerbitzuak (Batxilergoa Serapio Mujikan eta DBH Julio Urkijon) bateratu egingo zirela Serapio Mujikako eraikina berrituta, eta horretarako Eusko Jaurlaritzak jarriko zuen zenbateko ekonomikoa baliatuko zela, gaiari dagokion erakunde eskuduna den aldetik. Beraz, argi eta garbi dago Bidebieta auzoan gune bat behar dela, hezkuntza komunitateari kalitatezko zerbitzua emateko, eta ikastetxeko langileei, berriz, merezi duten duintasunez eginkizuna garatzeko toki bat emateko.

Jakin badakigu hezkuntza alorreko organo eskudunak –zehazki, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak– bermatu behar duela zerbitzu hori, baina Donostiako Udalak ere babestu behar ditu hiritarren interes eta eskubideak. Halaber, bistakoa da tartean dauden erakundeek eta hezkuntza komunitateak elkarrekin lan egin behar dutela, Bidebieta auzoaren eskaera legitimoak erantzuna izan dezan. Horrexegatik, hauxe da gure MOZIO ARRUNTA:

1. Donostiako Udalbatzak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio Bidebietako eskola komunitatearekin lankidetzan jardun dezala, auzoan hezkuntza zerbitzu publikoen iraupena bermatzeko aukera guztiak aztertze aldera.
2. Donostiako Udalbatzak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio hirian ematen diren hezkuntza zerbitzuen inguruko edozein aldaketa garrantzitsu jakinarazteko.

Donostian, 2017ko abenduaren 1ean

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga,
EH Bildu udal taldeko zinegotzia.